

A26 - Grabititzen duten gorputzak

Artearen bidez grabitazio-eremuaren kontzeptua aztertzeko jarduera. Artearen eta sormenaren bidez, zientziara eta teknologiarara hurbilduko zaitugu. Jardueran taldeko dinamika sortzaileak eta performatiboak erabiliko dira, grabitazio-eremuarekin lotutako kontzeptuak ulertzen eta esperimendatzen laguntzeko.

Ikasurtea
2. Batxilergoa

Data
2023ko irailan - 2024ko apirilan

Lantzen diren irakasgaiak
Kultura zientifikoa
Fisika

Jarduera mota
Adituaren bisita erakundera

Irismen geografikoa
Araba
Bizkaia
Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea
DIPC - Donostia International Physics Center

Zer ikasten dute ikasleek?

Artea/sormena eta gai zientifiko teknologikoak gurutzatuta, ikasteko eta ezagutzak eskuratzeko.

Erronkei aurre egitea eta taldean lan egitea, jarduera praktikoa baten bidez ezagutzak eskuratzeko, hainbat arlotan espezializatutako helduekin lan egitea eta haien laguntza izatea, eta jardueraren izaera esperimentalak eta sortzaileak.

Baliabideak

Prestakuntza. Irakasleei eta zuzendaritza-taldeei laguntzea, eta ikasgelan maila teorikoan zein praktikoan ezartzeko tresnak, prozesuak, metodologiak eta baliabideak ematea. Ikasgelan sormena lantzeko eta elkarlanean jarduteko prestakuntza da, eta barneratzen ditu diziplina arteko ikuspegia, pentsamendu disruptiboa, berrikuntza edo problema-soluzioa metodologiak eta prozesuak, eginez ikastea eta abar.

Materialak. Ikasleek ekarritako objektu arruntak, gehi irakasleak prestatutako oinarritzko objektu-sorta bat (koloretako sokak, oihal beltza, inbutua, linterna eta banda elastikoa); objektugraman zehaztuko dira. Proiektuan lantzen diren kontzeptu zientifikoei buruzko orientazio- eta aholkularitza-lana egingo du DIPCko adituak, eremu espezifiko horretan espezializatutako ikertzailearen ikuspegitik.

Garapena

1. Espazioa eta denbora sentitzeko dinamika, aukera emango duena gai bat aztertzeko, arrazonamendutik ez ezik, emoziotik, gorputzeko sentsazioetatik eta espazioaren eta gainerako presenteen kontzientziatik ere. Sentsazioen bidez, ideia hauek azalduko ditugu: testuinguru fisikoa, gure adimena, gure gorputza, grabitatea, grabitazio-orbita eta espazioaren eta denboraren kurbatura.

2. OBJEKTUGRAMA: Sistemako elementuen edo eragileen eszena bat kolektiboki ikusteko dinamika, horietako bakoitza espazioan jarritako objektu arrunt batekin lotuta. Galaxia bat irudikatzea aukeratuko dugu.

3. EKINTZA SINBOLIKOA, «zizare-zuloa»: saioan gertatu denari buruzko kontzientzia-eraketa bat egiteko dinamika. Nola etorri garen saiora eta ondoren nola ateratu garen.

Curriculumaren edukiak

Kosmosa eta grabitazio-eremua.